

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Ebazpena: R 11/2014

Espedientea: 25/2008

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ ---1) 1998ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergatik Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokion eragiketa-bolumena finkatzearen inguruan planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du 25/2008 espediente-zenbakiarekin, eta Javier Muguruza Arresek dihardu txostengile gisa.

## I. AURREKARIAK

1. Gatazka Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako diputatu nagusiaren 2008ko maiatzaren 9ko idazki bidez planteatu zen. Idazkia 2008ko maiatzaren 13an sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan, eta, horrekin batera, gatazka jartzeko erabakia (Diputatuen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 6an hartua) eta Foru Aldundiak gai honetan izapidetutako administrazio-espedientea aurkeztu ziren.

2. Espedientetik, honako gertakari hauek ondoriozta daitezke:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

- 1. ERAKUNDEA erakundeak (IFZ: ---1) ("1. ERAKUNDEA" edo "erakundea" aurrerantzean) GIPUZKOAN du zerga-egoitza.

Erakundeak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu zituen 1998ko ekitaldiko BEZaren hileko aitortpen-likidazio guztiak, eta erakundearen eragiketa-bolumenaren 100eko 100 Gipuzkoako Lurralde Historikoari zegokion ekitaldi horretan. Kalkulatu zuenez, 1998ko ekitaldian Gipuzkoako Lurralde Historikoari zegokion kuotaren emaitza 1-ZENBATEKOA pezetako zenbatekoa zen (itzultzeko). Erakundeak bidezko itzultzea eskatu zion Foru Ogasunari, eta lortu egin zuen. Era berean jokatu zuen 1999 eta 2000ko ekitaldietan.

2002ko abenduaren 27an, erakundeak idazki bana aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundian eta ZAEAn; bertan adierazten zuenez, akats bat egin zuen autolikidazioak egitean, 1998an BEZari dagokionez Gipuzkoako Lurralde Historikoari zegokion eragiketa-bolumena ez baitzen 100eko 100 izan, 100eko 76,68 baizik; gainerako 100eko 23,32 lurralde erkidean egindako eragiketei zegokien. Horren ondorioz, adierazitako akatsarengatik ZAEAn oker sartutako zenbatekoa, hau da, 2-ZENBATEKOA pezeta (3-ZENBATEKOA euro) Gipuzkoako Foru Aldundiari transferitzeko eskatzen zion ZAEari Oinarri berarekin, antzeko eskaera egiten zuen 1999 eta 2000ko ekitaldien kasuan. Adieraziko dugunez, eskaerak erantzuna izan zuen, eta, beraz, ez da gatazka honen xede.

2004ko maiatzaren 20an, ZAEako Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-ikuskatzaileak Erabaki bat hartu zuen. Bertan, onartzen zuen 1. ERAKUNDEAREN eragiketa-bolumena, 1998ko BEZean eta lurralde erkidean, 100eko 23,27 izan zela (erakundeak 100eko 23,32 zifran finkatu zuen), eta partzialki baietsi zuen erakundeak itzultzeko egindako eskaera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Erabakiak Gipuzkoako Foru Aldundiari sozietateak eskatutako 3-ZENBATEKOA euroetatik 4-ZENBATEKOA euroko zenbatekoa transferitzeko agintzen zuen. Zenbateko hori 1. ERAKUNDEAREN 1998ko abenduak eragiketa-bolumenaren zuzenketari zegokiona zen. 1998ko urtarriletik azarora bitarteko eragiketa-bolumenaren zuzenketari zegozkion zenbatekoak ez ziren itzuli, erakundeak itzultzeko eskaera egin zuenean (2002ko abenduaren 27an) zenbateko horiek itzultzeko eskubidea preskribatuta baitzeuden. Halaber, eztabaida honen xede ez diren 1999ko eta 2000ko zenbatekoak itzultzeko erabaki zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako diputatuak, Foru Agindu bat eman zuen 2008ko martxoaren 13an; bertan, Estatuko Administrazioari Gipuzkoako Foru Aldundiak 1998ko urtarriletik azarora bitarte 1. ERAKUNDEAREN eragiketa-bolumena oker finkatu izanaren ondorioz oker egindako itzultzeei dagokien 5-ZENBATEKOA euroko zenbatekoa kobratzeko eskumenean inhibitzeko eskatzea xedatzen zuen, eragiketa-bolumena zuzen finkatu izan balitz zenbateko hori ZAEAK itzuli beharko baitzukeen.

ZAEARI inhibitzeko errekerimendua igorri ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bereziak honako hau erantzun zuen 2008ko maiatzaren 2an: "Foru Ogasunak eskatutako biltzeko eta kobratzeko eskumenari lotutako jarduna zergapekoari preskribatu izanagatik partzialki ukatutako itzultze bati dagokio. Itzultzea 2004ko maiatzaren 31n jakinarazi zitzaion Foru Ogasunari, eta ez dago jasota Foru Ogasunak eskaera hori egin aurreko edo ondorengo jardunik".

Erantzun hori 2008ko maiatzaren 6an jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta egun horretan bertan, Arbitraje Batzorde honetan Gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

aurkeztea erabaki zuen Diputatuen Kontseiluak (2008ko maiatzaren 13an sartu zen Arbitraje Batzordean).

3. Arbitraje Batzorde honek izapidetzeko onartu zuen gatazka 2008ko irailaren 12an.

4. ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen zuzendari nagusiaren 2008ko urriaren 30eko idazki bidez, eta 2008ko azaroaren 4an erregistratu zen. Idazki horretan, azaldutako aurrekariei eta zuzenbideko oinarriei jarraiki, honako hau eskatzen zion Arbitraje Batzordeari: gatazka onartezina zela deklaratzeko, horretaz arduratzeko eskumenik ezagatik (Ekonomia Itunaren 66. artikulua Arbitraje Batzordeari esleitutakoez bestelako gai bati lotuta baitzegoen) eta garaiz kanpo planteatu izanagatik. Subsidiarioki, zergapekoak aurkeztutako 1998ko lehen 11 hilabeteetako BEZaren aitopenen zuzenketa eta aldi horien preskripzioa bidegabetzat hartzeko eskatzen zuen.

ZAEAk alegazioen idazkiarekin batera igorritako espedientetik ez da ondorioztatzen azaldu direnez bestelako gertakari esanguratsurik.

5. Espedientea jakinarazteko izapidetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ZAEAk alegazioak aurkeztu zituzten. Lehenak Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuaren 2009ko apirilaren 6ko idazki bidez aurkeztu zituen (idazkia hilaren 8an erregistratu zen Arbitraje Batzordean). ZAEako zuzendari nagusiak 2009ko apirilaren 1eko data zuen eta Arbitraje Batzordean hurrengo egunean sartu zen idazki bat aurkeztu zuen.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Bidezkoa da, lehenik eta behin, ZAEAk gatazka ez onartzeari buruz planteatutako alegazioa aztertzea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

ZAEAk adierazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako gatazkaren inguruko arazoa ez dago Ekonomia Itunaren 66. artikulua eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 3. artikulua Arbitraje Batzordeari esleitzen dizkieten eskumenen eremuan sartuta.

Gaineratu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako eztabaidaren oinarria Aldundiak berak ZAEARI egindako erreklamazioan preskripzioaren ezarpena aplikatzeko aukera da, eta, dirudenez, arlo hori ez da kontuan hartzen Arbitraje Batzordearen eskumenak arautzen dituzten ataletako ezeinetan.

ZAEAk Arbitraje Batzordearen eskumenik ezaren inguruan egindako alegazioaren azterketari dagokionez, eztabaidaren xedea zehaztu beharra dago, hots, ZAEAk Gipuzkoako Foru Aldundiari 1. ERAKUNDEAREN 1998ko BEZAREN itzultze gisa transferitu beharreko zenbateko jakin bat. Zehazki, ZAEAk bere gain hartu behar zuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak itzuli zuen zenbatekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren uzi horren aurka agertu da ZAEA. Izan ere, ZAEAREN ustez ez da bidezkoa transferentzia egitea, eskaera egiteko unean preskribatuta baitzegoen Gipuzkoako Foru Aldundiak kreditu horren errekonozimendua lortzeko zuen eskubidea.

Ezezko hori ez dator bat zergapekoek lortutako itzultzeen ondoriozko administrazioen arteko transferentzien kasuei lotutako preskripzioaren zenbaketaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen interpretazioarekin, eta horrek Arbitraje Batzorde honen eskumenetan bete-betean sartzen den gatazka nabarmena sorrarazten du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Izan ere, eskumen horiek ez dira mugatzen Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak interpretatzera; aitzitik, "zerga-harreman indibidualei lotutako kasu zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatu eta aplikatzearen ondorioz administrazio interesdunen artean sortzen diren gatazkez arduratzera" ere iristen dira.

Hori dela-eta, baztertu egin behar dugu arrazoi horrengatik gatazka ez onartzeko egindako eskaera.

2.- Bigarrenik, Arbitraje Batzorderik ezean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan gatazka aurkeztu ez izanagatiko garaiz kanpoko planteamenduari lotutako alegazioa aztertu behar da; alegazio hori gatazka ez onartzeko arrazoi gisa planteatu zuen ZAEAk.

Argudio hori behin eta berriz erabili du ZAEAk Arbitraje Batzorde honetan izapidetutako beste espediente batzuetan.

Egia da Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak ez duela arautzen Arbitraje Batzordeko kideak izendatu eta Arbitraje Batzordea eratu aurretik planteatutako gatazketarako erregimen iragankorrik, baina, abenduaren 22ko 2/2008 Ebazpenean eta azaroaren 4ko 23/2011 Ebazpenean aztergai dugun gatazkan planteatutakoen antzeko argudioei kontra egiteko adierazi genuenez, "Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan arau iragankorrik gabe, ez dago arrazoirik gatazka planteatzeko epea zenbatzen hasteko eguna adierazitako datetako edozeinetan kokatzeko. Aitzitik, esan daiteke Erregelamendu horren epe-sistema aplikatzeko beharrezkoa dela Arbitraje Batzordeak bere funtzioak betetzea. Izan ere, ez litzateke justifikatuta egongo Arbitraje Batzordera Ekonomia Itunean eztabaidak konpontzeko aurreikusitako bide gisa jotzeko aukera iraungitzea, organo horrek eztabaida horietaz arduratzeko aukera errealia izan aurretik. Gainera, *pro actione*

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

printzipioak babestu egiten du ondorio hori. Kontsiderazio horiek kontuan hartuta, 2008ko apirilaren 4an eratu zenean konpontzeko zeuden gatazkak izapidetzeko aukera onartzeko irizpideari jarraitu dio Arbitraje Batzordeak (adierazitako gatazka horien artean, Arbitraje Batzorde honen erabakiaren baldintzapean jarritako gatazka hau dago. Egiaz, ez dira gatazka berriak (berriak izango balira, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan ezarritako hilabeteko epea aplika liteke), aspaldi sortutako gatazkak baizik (zenbait kasutan –erabaki honen xede den gatazkaren kasuan, adibidez–, duela urte batzuk sortutakoak dira), eta horiek ebazteko gaitu da orain bide hau. Nolanahi ere, adierazitako epea ezin izango litzateke atzeraeraginez aplikatu, segurtasun juridikoa kaltetu gabe, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamendua argitaratu aurretik planteatutako gatazketan. Aurreko arrazoibideei jarraiki, bidezkoa da ZAEAk garaiz kanpoko planteamenduari lotuta aurkeztutako alegazioa baztertzea".

Doktrina hori gatazka honetara ekarri dugu, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak berretsi egin baitzuen 2010eko apirilaren 22ko epaian (147/2009 zenbakiko errekurtsua) eta 2011ko apirilaren 13ko epaian (540/2008 zenbakiko errekurtsua). Adierazitako bigarren epai horrek aurrekoa aipatzen du, eta gaineratzen duenez, bat dator "Arbitraje Batzordeak bera eratu aurretik konpontzeko zeuden gatazken inguruan jarraitutako irizpidearekin, ez baitira gatazka berriak (berriak izango balira, Erregelamenduan ezarritako hilabeteko epea aplika liteke), aurretik sortutako gatazkak baizik (aztergai duguna, adibidez).

Gai hori, beraz, erabat argituta dago, eta baztertu egin behar dugu, halaber, gatazka ez onartzeko eskaera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

3.- Gatazka honetan sortutako sakoneko arazoak preskripzioaren ezarpena administrazio publikoen arteko betebeharrak eta eskubideei aplikatzeko aukerarekin du zerikusia.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta ZAEA bat datoz arloan aplikatu beharreko araudia identifikatzean: Aurrekontu Lege Orokorra (irailaren 23ko 1091/1998 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Testu Bategina, 2004ko abenduaren 31ra arte indarrean egon zena, eta 47/2003 Legea, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagoena), eta 17/1990 Foru Araua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.

Lege-testu horiei jarraiki, preskripzio-epaia bost urte da. Dena dela, Lurralde Erkideko araudian, epea lau urtera murriztu zen 2005-1-1etik aurrera, eta preskripzioaren etenak Tributuen Lege Orokorrak eta Gipuzkoako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak kasu horietarako ezartzen dutenari jarraiki egiten dira.

Hortaz, bi administrazioak lege-erregimen aplikagarriaren eta preskripzio-epaiearen inguruan ados daudenez gero, gatazkak adierazitako epearen zenbaketa du ardatz (eta, zehazkiago, *dies a quo* izenekoaren finkatzea).

ZAEAk dioenez, 2008ko martxoaren 14an erregistratutako errekerimenduaren aurretik ez du jasota Gipuzkoako Foru Aldundiak 1998ko BEZaren likidazio gisa 1. ERAKUNDEARI itzuli zizkion zenbatekoak erreklamatzeko egindako ezin jardunik, eta, gainera, data horretan gaudituta zegoen preskripzio-epaia.

1. ERAKUNDEARI egindako itzultzeak (1998ko BEZari zegozkionak) 1999ko martxoaren 2an amaitu zituela eta ZAEARI zenbateko hori erreklamatzeko egindako lehen errekerimendua 2008ko martxoaren 14koa dela onartuta ere,



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez 2002ko abenduaren 27ko, 2003ko abenduaren 10eko eta 2004ko maiatzaren 21eko datak oso garrantzitsuak dira 2008ko martxoaren 14ko errekerimendua 1. ERAKUNDEAri 1998ko BEZagatik itzultako zenbatekoaren zati baterako kreditu baten onarpena (ZAEAREN onarpena, alegia) jasotzeko eskubidearen preskripzio-epea igaro ondoren egin ez zela finkatzeko.

2002ko abenduaren 27an, 1. ERAKUNDEAK idazki bana bidali zien Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ZAEAri; bertan adierazten zuenez, akats bat egin zuen 1998ko BEZaren autolikidazioak egitean; izan ere, Gipuzkoari zegokion eragiketa-bolumena 100eko 100 zela adierazi zuen, baina, benetan, 100eko 76,68 baino ez zen; gainerako 100eko 23,32 lurralde erkidean egindako eragiketei zegokien. Horren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1998ko BEZ gisa itzultako zenbatekoaren zati bat ZAEAK itzuli beharko zukeen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, data hori hartu behar da *dies a quo* gisa kreditua onartzeko eskubidearen preskripzioa zenbatzeko. Izan ere, egun horretan hartu zen bidegabetzat 1. ERAKUNDEAri 1998an Lurralde Erkidean egindako eragiketen ehunekoaren inguruan egindako itzultzea, eta, beraz, egun horretan baliatu ahal izan zuen lehen aldiz erreklamatzeko eskubidea.

Bere ustez, gainera, 2003ko abenduaren 10ean (hau da, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-ikuskatzaileak emandako Erabaki batean 1. ERAKUNDEAREN lurralde erkideko eragiketa-bolumena (1998ko BEZari dagokionez) 100eko 23,27 zela onartu zuen eta erakundeak itzultzeko egin zion eskaera partzialki baietsi zuen egunean), eten egin zen preskripzio-epearen zenbaketa.

Eten hori, bere ustez, 2004ko maiatzaren 21ean gertatu zen berriz, ZAEAK Gipuzkoako Foru Aldundiari erreklamazioaren ondorioz 1. ERAKUNDEAri zor

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

zitzea zenbatekoa transferitzea erabaki zuenean. Izan ere, autolikidazioa egitean, 1998ko BEZari lotutako eragiketa-bolumena oker zenbatu zen, eta tributu horrengatik eta ekitaldi horretan erakundeari zegokion itzultzearen zati bat ZAEAk egin behar zuen.

Horri guztiari erantzuteko, honako hau adierazi beharra dago: 1. ERAKUNDEAREN egoitza Gipuzkoan zegoela kontuan hartuta, Ekonomia Itunaren 29. Sei artikuluan xedatutakoari jarraiki BEZaren ikuskapena Gipuzkoako Foru Aldundiari zegokion, bai eragiketa-bolumenaren 100eko 100 Gipuzkoan egin izan balitz (erakundeak autolikidazioetan jasoarazi zuenez), bai, benetan gertatu zen bezala, eragiketa-bolumen horren zati bat –100eko 75 baino txikiagoa, nolahi ere– Lurralde Erkidean egin izan balitz.

Edonola ere, ez dago jasota Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztapen bat egin duenik 1. ERAKUNDEAK 2002ko abenduaren 27a baino lehen (hots, erakundeak akatsaren berri eman zuen eguna baino lehen) bere BEZaren autolikidazioetan aitortutako eragiketa-bolumena zuzena zen ala ez finkatzeko

Aitzitik, jasota dago Gipuzkoako Foru Aldundiak 1. ERAKUNDEARI data horren aurreko autolikidazioetan eskatutako zenbatekoa oso-osorik itzuli ziola, aitortutako eragiketa-bolumena (100eko 100 Gipuzkoan, ekitaldi guztietan) zalantzan jarri gabe.

Hortaz, onartezina da Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEARI azken horrek 1. ERAKUNDEARI 1998ko BEZagatik oker autolikidatutako eragiketa-bolumenaren zuzenketaren ondorioz itzuli beharreko zenbatekoak erreklamatzeko eskubidea baliatu ezin izana, erakundeak berak bi administrazioetan zerga horri eta ekitaldi horretan autolikidazioak egitean akats bat egin zuela onartzeko idazki bana aurkeztu zuen arte.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Zergapekoaren akats batengatik oker egindako itzultze baten ordaina hartzeko eskubidea itzultzea egin behar zuen administrazioaren aurrean baliatzeko uzia zergapekoaren beraren ekimenaren baldintzapean egotea ez dator bat ordenamenduak Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako zerga-administrazio bati onartzen dizkion posizio eta ahalmenekin. Eta are okerragoa da zergapekoak akats bat egin izana adierazte hutsa izatea administrazio batek beste bati zenbateko bat erreklamatzeko uzia baliatzeko duen eskubidearen sorreraren elementu erabakigarri bakarra.

Gipuzkoako Aldundiak 1. ERAKUNDEAri 1998ko urtarriletik azarora bitarteko BEZagatik itzuli behar ez zituen zenbatekoak itzuli izanaren arrazoi bakarra erakundeak aurkeztutako autolikidazioak egiaztatze eskumenak baliatzeari uko egin izana da. Hori dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEAri itzultze horiek ordaintzeko eskatzean, beste administrazio horri ordainarazi nahi dizkio bere eskumen propioak baliatu ez izanaren ondorioak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean araututako zerga-preskripzioaren lau urteko epea izan zuen 1. ERAKUNDEAk 1998an autolikidatutako eragiketa-bolumena zuzena zen ala ez egiaztatze. Eta, beraz, zuzena ez zela egiaztatu izan balu, bost urteko epea zuen, 1998ko Aurrekontu Lege Orokorraren Testu Bateginaren eta 1990eko Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzko Foru Arauaren arabera, ZAEAri bidezko itzultzeen guztizko zenbatekotik jasan behar zuen zatia erreklamatzeko. Eta epe horiek igarotzen utzi zuen, egiaztapenik eta erreklamaziorik egin gabe.

Eta 2002ko abenduaren 27aren (hau da, 1. ERAKUNDEAk Gipuzkoako Foru Aldundiari eragiketa-bolumena finkatzean Aldundia bera kaltetzen zuen akats bat egin zuela adierazi zion egunaren) ondorengo egunetan ere, Aldundiak ez zion inolako errekerimendurik egin ZAEAri. Era berean, 2004ko maiatzaren 31n

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

ZAEAk Aldundiari 1. ERAKUNDEAren 1998ko eragiketa-bolumen zuzenari jarraiki 1998ko abenduagatik itzuli behar zuen zenbatekoa transferitu ziola jakinarazi zionean ere ez zuen errekerimendurik egin.

Ondorioztatu beharra dago, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEari 2008ko martxoaren 14an 1. ERAKUNDEAren 1998ko BEZaren bilketaren inguruan inhibitzeko egindako errekerimendua Aldundiaren aldeko kreditua onartzeko eskubidearen preskripzio-epea amaitu ondoren egin zela.

Eta ZAEAk 1. ERAKUNDEAren 2002ko abenduaren 27ko erreklamazioari dagokionez egindakoak ez du ondorio hori eragozten (adierazitako erreklamazioa zergapeko batek egindako itzultze-eskaera gisa izapidetu zen, eta lortzeko eskubidearen preskripziotik kanpo zeuden zenbatekoak itzultzeko eskubidearen uzia eta onarpena baietsita ebatzi zen). Eta ez du eragozten, espediente horretan 1. ERAKUNDEA soilik izan zelako alderdia, eta haren jardunak Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi ez zitzaizkiolako, ondoren adieraziko dugun salbuespenaren kasuan izan ezik. Beraz, jardun horiek nekez izan zezaketen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideen preskripzioa eteteko ondoriorik.

Eta adierazitako espedienteari amaiera eman zion Ebazpenean onartutako itzultzea zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari egin izanak (1. ERAKUNDEAK eskatu bezala, zenbateko horien itzultzeak Administrazio horrek ordaindu zizkiola argudiatuta) ere ez zuen preskripzioa eten, ZAEAk 2004ko maiatzaren 31n (hau da, preskripzio-epea igaro ondoren) jakinarazi baitzion zirkunstantzia hori Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

## ERABAKI DU

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
25/2008	R11/2014	2014/12/19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Eragiketa bolumena. Administrazio eskuduna

Ez dela bidezkoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren uzia onartzea, hau da, Aldundia "1. ERAKUNDEAK Gipuzkoako Lurralde Historikoko eragiketa-bolumenaren ehuneko okerra aplikatuta (% 100) aurkeztu zituen 1998ko ekitaldiko BEZaren aitortpen-likidazioen ondoriozko itzultzeei dagokien eta zuzen aplikatu izan balitz Estatuko Administrazioak itzuli beharko zuen 5-ZENBATEKOA euroko zenbatekoa biltzeko eta kobratzeko eskuduntzat hartzea"; eta, horren ondorioz, ez dela bidezkoa ZAEAK Gipuzkoako Foru Aldundiari zenbateko hori transferitzea, erreklamatzeko eskubidearen preskripzioa gertatu baita.